

TABAKALERA



**IKASGELATIK
MEDIALABERA.
Eskolekin
proiektuak
DEIALDIA
2024/2025**

**ESKOLA // HEZKUNTZA // ESPERIMENTAZIOA //
EZAGUTZA // LAN-TALDEA // HARREMANAK //
TEKNOLOGIA // MEDIALAB // TABAKALERA //
SORKUNTZA // ELKARLANA**

**KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA**

**CENTRO
INTERNACIONAL
DE CULTURA
CONTEMPORÁNEA**

**INTERNATIONAL
CENTRE FOR
CONTEMPORARY
CULTURE**

tabakalera.eus



ZER DA “IKASGELATIK MEDIALABERA”?

Irakasgai bat modu berritzailean landu nahi zenukete? Eskola proiektu baterako ideia daukazue baina ez duzue baliabide egoki edo ezagutza-tekniko zehatzik? Praktika eta esperimentazioa ohiko prozesu batean txertatu nahiko zenituzkete? Klasetik atera eta espazio inspiragarri batean lan egin nahi duzue Medialab Tabakalerako lantaldearekin elkarlanean?

Deialdi honen helburua eskola esparrutik irten eta Medialab Tabakalera, bertako taldearekin batera, egitasmo bat gauzatzea da; eta, era berean, zerbitzu desberdin bat eta eskaintzen dituen aukera guztiak erabili eta esperientziaz gozatzea.

Irakasleen eta Medialab Tabakalerako lantaldearen artean diseinatuko dugu proiektua, curriculumeko gai bat eta bertako lan-esparruak diren Artea eta Pentsamendu garaikidea uztartuz, guztien arteko zeharkakotasuna ere landuz.

Aukera interesgarria iruditzen bazaizue, bidali zuen proposamena!

NOLAKO PROIEKTUAK JASO NAHI DITUGU?

Aurkeztutako proiektu-proposamenek ondoko hiru esparruetako bati gutxienez erantzun beharko diote:

- BIDEOGINTZA

Ikus-entzunezko ekoizpen bat sortzeko prozesua ezagutzea izango da jomuga: lengoaiaren oinarriak ulertzea, zinemaren eta ikus-entzunezkoen lanbideak ezagutzea eta azken lan bat sortzea, betiere eskolan landu nahi den gaia oinarri hartuta. Filmak lantzean gaitasun analitikoa garatzen da, ikus-entzunezko pieza labur bat ekoizteko elementu teknikoak ezagutu eta alfabetizazio bisualaren kompetentziak lantzen dira.



Horrelako proiektu bat aurrera ateratzeko edukiak (gidoia, storytelling-a), ekoizpena (soinua, argia, kamerak, zuzendaritza, aktoreak,..) eta postprodukzioa (sortutako piezaren edizioa) landu ahal izango dira.

- JOLAS EKOIZPENA (Jolasa edo bideo-jokoa)

Bideo-joko zein mahai-jolasen ekoizpenean murgiltzeko pentsatuta dago aukera hau. Lanketa honetan, eta beti ere eskolan landu nahi den gaia oinarri hartuta, ideien antolaketa, pertsonaien diseinua, jolasaren helburua, estrategia... eta arlo teknikoari dagokionez diseinua, estetika, grafikoak, programazioa etab. ere landu daitezke.

Kontua ez da soilik teknologiaren erabilerari eta eduki jakin batzuei buruzko gaitasunak ikastea; aitzitik, jokoak negozioaziarekin, erabakiak hartzearekin, komunikazioarekin eta hausnarketarekin lotutako gaitasunak lantzea ere ahalbidetzen du narrazio edo kontakizun baten bitartez.

- SOINU SORKUNTZA

Soinua gugandik at sortu daiteke edo guk gure gorputzaren bitartez sortu dezakegu, gertatuko denaren adierazle izan daiteke edo gertatu den zerbait gogorarazi diezaguke; mundu berri batean murgilarazi gaitzake, baita ezagutzen dugun mundu bat guztiz eraldatu ere: soinuak istorio berri bat konta diezaguke, baita haren faltak ere.

Esperimentazioa, eskulangintza eta sorkuntza sustatzea da arlo honen helburuetako bat. Proposamen honek soinu sorkuntzan murgiltzeko aukera emanten du; objektu ezberdinen bitartez musika tresnak sortzetik, armonia konposaketa bat egitera edota arduino eta elektronikaren bitartez soinua ekoiztera ere, azken finean, gure garaikidetasunari lotuta dauden sorkuntza prozesuek, arlo ezberdinetako ezagutzak barneratzea eskatzen dute.



NORI ZUZENDUA DAGO?

Deialdia Donostialdeko zein Euskal Autonomia Erkidegoko **LH, DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa Erdi Mailako eskolei zuzendua** dago. Edonola ere, ikasleen adin-tarteari begira pentsatu eta landuko lirateke ariketak, eta haien neurrira prestatu.

2024/2025 ikasturterako deialdi honetan **hiru eskola** proiektu onartuko dira **gehienez**.

Eskola bakoitzak proiektu bat baino gehiago aurkeztu ahal izango ditu, baina ikastetxeko bakoitzeko bakarra hautatua izango da.

NOLA GAUZATUKO DA PROZESUA?

Proiektuak 3 fase izango ditu:

- Ko-diseinua lantaldearen eskutik: hasieratik, ikastetxeko irakasleek eta Medialab Tabakalerako teknikariek osatutako lantalde bat sortuko da proiektua diseinatu eta jarraipena egiteko. Guztien artean, ardurak banatuta. Medialab Tabakalerak eskaintzen dituen aukerak azalduko dira, proposamenean erabilgarria izan daitekeena kontuan hartzeko.

- Garapena: definitu eta adostutako dinamikak eta saioak aurrera eramango dira, proiektua eskolan eta Medialaben landuz. Proiektua dokumentatuko da.

- Ebaluazioa: prozesuan zehar sortutako lanak eta emaitzak modu kualitatiboan baloratuko dira eta baita prozesua bera ere. Ebaluazioa, eskola eta Medialab Tabakalerako taldearen artean egingo da, elkarrekin.



HAUTAKETA IRIZPIDEAK

Hautaketa prozesuan deialdiaren oinarriekin bat egiten duten proiektuak bakarrik baloratuko dira. Proiektuak berdintasuna, lankidetzeta eta 2030 Agenda lerroak indartzen baditu, kontutan izango dira. Baita, beste erakunderen batekin elkarlanean landuko den proiektua bada ere.

Proiektuaren bideragarritasunari eta ideien sendotasunari garrantzia emango zaio.

Aurkeztutako proiektuek aurreikusitako baldintzekin bat egingo ez balute, Tabakalerak deialdia hutsik uzteko eskubidea izango luke.

IKASTETXE ETA MEDIALAB TABAKALERAREN BETEBEHARRAK

Proiektuaren jarraipena egiteko Medialab Tabakalerak eta ikastetxeak harremanetarako pertsona bat izendatuko dute.

Hautatutako proiektua da aurrera eramango dena. Horretarako hasiera bileraz gain, non datak eta prozesua bera adostuko diren, jarraipenerako saioak egin ahal izango dira.

Burutuko den proiektua adostutako lizentzia ireki baten menpe egingo da.

Bi erakundeen konpromezua izango da proiektuak aurrera eramateko parte bakoitzaren ahalmenen arabera baliabideak jartzea (giza baliabideak, tresneria eta materialak).

AURKEZTUTAKO PROIEKTUAN AZALTZEKOAK

Proiektu proposamenak ondorengo atalak jaso behar ditu.

Izenburua:

Helburua(k):

Proiektuaren deskribapena:

Besterik:

TABAKALERA



Proiektu proposamena bidaltzeko formularioa bete eta proiektu proposamena PDF artxibo batean gehitu behar da.

DATAK ETA AUKERAKETA

Deialdia zabalik izango da **maiatzaren 27tik ekainaren 21era** (12:00ak arte).

Epaimahaia Medialab Tabakalerako 3 lagunek osatuko dute: Arduraduna, Koordinatzailea eta Teknikaria.

Ebazpena ekainaren 26ean izango da.

Irailaren lehen hamar egunetan egingo da proiektu hasiera bilera Medialab Tabakalera eta ikastetxeko proiektuaren arduradunekin.

Hautatutako proiektua 2024-2025 ikasturtean zehar garatuko da, eta proiektuaren egutegia ikastetxea eta Medialaben artean adostuko dira.

Proiektu-idea aurkezteko www.tabakalera.eus orrialdeko formularioa bete behar da. Sortu daitezkeen zalantzak bideratzeko idatzi medialab@tabakalera.eus (gaia: Ikasgelatik Medialabera) helbidera ala deitu 943 011 311 (3413 luzapena) telefono zenbakira.